

ANDIMA SABIN IBINAGABEITIA (1906-1967)

Andima Sabin Ibiñagabeitia Idoyaga Elantxobeko elizatean jaio zen 1906ko urtarrilaren 26an, Korreo kalean eta gaueko bederatzietan, bertako epaitegiko Erregistro Zibilean dagoen jaiotza-agiriak egiaztatzen duenez. Beste horrenbeste dio Elantxobeko parrokiako bataio-agiriak ere.

Hurrengo egunean bataiatu zuen bertako erretore zen Don Juan Gorgonio Calle-k.

Hala ere, ez dakit zergatik, berak bere burua 1906an ez baizik 1907an jaiotakotzat azaltzen du, Santi Onaindiak hala eskaturik, bere curriculum idazten duenean. Misterio txiki hori, agi denez, berekin eraman du Andimak, aurrerago ikusiko dugun legez, beste zenbait ere eraman

dituen bezala. Onenean ere, baliteke misterio-aire honek kalte ez baina on egitea bere oroipenak luzaroago iraun dezan gurean.

1

Andima Ibiñagabeitia, 1906-1967



2

Euskal Herrian semeari Andima Sabin izenak ezartzea ez zen inondik Sabin izenak ezartzea ez zen inondik ere arrunta 1906an. Bataio-agirian jartzen du "por exigencia de sus padres". Andima, Sabino Aranak 1897an argitara zuen *Egutegi Bizkaitarra* izendegian agertzen den izena da: erdal Antimoren euskal ordaina, eta Sabin izenaz ez dago zer esanik. Gurasoak Andimaren hurrengo eta azken senidea erregistratzera joan zirenean, Patxika izena jarri nahi izan

behartu zituzten; eta orduan, gurasoek Francisca Esclava jarri zioten, espainiarrekiko morrontza izenean bertan ezarriz, eta aldi berean salatuz. Pasadizo hauek berauek daude esaten zer ideiatakoak ziren gurasoak, eta zer izaera zuten.

Ama eta bi arrebekin Hendaian.



Elantxobe, Ogoño mendiaren magalera bilduak dauden etxeek eta bertako bizilagunek, San Nikolasi eskainitako elizak eta honenganako jaiarak nahiz marinelei aterpe emateko eraiki portuak osatzen dute. Baina leku zabalena itsasoak hartzen du, baztergabeko itsaso miresgarriak, eguzkia ere, urte-sasoiaren arabera, irten eta sartu bertan egiten da ikusmira zoragarriak eratuz. Zer girotan bizi zen Elantxobe ederra mende hasieran? Batez ere, nolakoak ziren Andimaren inguruko gizon-emakumeak?

Andimaren aita, Galo, gauden mendearen hasieran mitin nazionalistetan ibiltzen zen Gernika eta inguruetan hitzaldiak ematen ez baizik kantari, ahots aparta izan behar

zuen. Hizlari famatuenetako bat Gorgonio Renteria zen. Honek ere, beste elantxobetar askok bezala itsasoko bidea hartu zuen. Merkantzia-untziko kapitaina, hogeitau urte inguru eman zituen Filipinetan, eta bertan 1898an, espainol, filipinar abertzale eta amerikarren arteko gerratean eginkizun axolazkoa jokatzeari suertatu zitzaion. Bere alaba Jule Renteriak adierazi zidanez, Filipinak euskaldunenak zirela esaten omen zuen han misiolari euskaldun asko zegoelako. Egiten zuen lanagatik

3

Andimaren jaiotetxea,
Elantxobeko Korreo Kallean.



4 -merkantzien garraioa uharterik uharte- eta batez ere, beti erakutsi zuen jokabide zuzen eta gizalegezkoagatik batekoen eta bestekoen konfiantza bereganatzea lortu zuen. Gauzak nola diren, harreman hauei eta beste batzuei esker lortu zituen Jose Antonio Agirrek giltzak Bigarren Mundu Gerra garaian, amerikar agintarien ateak zabaltzeko, eta ondorioz zerbitzuak eta lankidetzak hitzartzeko.

Bada, Andimaren aitaren gogaide eta adiskide handi honek Euzkadi aldizkariko orrietan Galo Ibiñagabeitiaren goraiamena egin zuen. Adierazi zuen nola atxilotu zutenean Gernikako epaileari adierazpenok egin zizkion: "Enaz ni neure egilea. Jaungoikoak ein nenduen euskotarra, ludiko beste endatakoak ein zituen antzera, geure izkuntza, abesti, dantza, eskubide eta oitura ezbardiñakin eta egi eder onek eusko umetxueri irakasteagaitik,

errudun banaz, emen naukazue zeuren menpian, bada nik ezin ditudaz ukatu, ez".

Andima mutiko zela, Gorgonio Elantxobeko alkate izan zen, Eusko Alderdi Jeltzaleko EBBko buru, eta gero Bizkaiko Aldundian diputatu nazionalista. Oso azkar zabaldu zen nazionalismoa Elantxoben. Sabino Arana maiz etortzen zen Sukarrietara, baita Elantxobera ere. Esaera egina izan behar zuen, Eusko Alderdi Jeltzaleaz zerbait jakin nahi izanez gero, Elantxobeko botikan galdetu behar zela, han egiten zituztelako garai batean nazionalistek bilerak. Oroit zer bigarren izen jarri zioten Andimari, eta idazkariarekiko komeriak.

Elantxobe goitik begiratuta.



10 urte zituela, jesuitek Tuteran zuten ikastetxera bidali zuten batxilergoa egitera. Ikastetxe hau ez zen Xabierkoa bezalakoa, jesuita izan behar zutenei espresuki zuzendua; hemen ikasitako gehientsuenak ez ziren jesuita egiten. Andimari gogoan geratu zitzaion nola, bera artean gaitza motzekiko mutiko zeia, latin-eskolan Orixe handiak galdetu zion zer esan nahi zuen "Ibi"-k, eta nola dardarka gaztelania ikasi berrian "Allí" erantzun zion.

Handik Loiolara egin zuen, jesuita izatera iristea erabakita, eta 15 urte betetzen zituen biharamunean,

1921.eko urtarrilaren 27an sartu zen Loiolako Nobiziatuan eta handik bi urtera, 1923ko hasieran, egin zituen boto txikiak: pobrezia-, garbitasun eta obediencia-botoak. Ordurako gaindituak zituen nobizioei eskatzen zitzaizkien proba gogorak jesuita izateko gai ziren egiaztatzearen.

Loioian Andimaren ikaskide eta lagun handia izan zen Iñaki Goenagaren arabera -*Gillermo Tell* Schilier-en dramaren euskaratzailea-, probak ez ziren samurrak, gogorrenetakoak eskeko hilabetea eta ospitalekoak izaten ziren. Eskeko

Busturialdea,
Santimamiñetik



6 hilabetean hiru hiru ibiltzen ziren eskean inguruko herrietan, herriko elizetan eta aterpetuz gaua igarotzeko. Ospitalekoan gaisoen menpetasunean bizi behar. Jesusen lekukotasuna emateko, lurrean Jainkoaren Erresuma zabaltzeko gai izan zitezten, Jesus behartsu bilakatzen ikasi beharra zuten, gurutzea eramaten trebatu beharra, ikasketetan aurrera egiteaz gain.

Pobrezia eta garbitasunari zegokienean, zintzoa izango zen Andima, seguru asko, baina

obedientziarekikoan goiz erne zitzaion gatazka. Andima eta Zaitegirentzat, behiala Pablarentzat Damasko izandakoa Txalintxo mendiska bilakatu zen. Zati bat Azkoitiarena eta bestea Azpeitiarena duen mendi horretara txango joaki -nor ote zen hirugarren nobizioa?- *Ami vasco* irakurri zuten, eta harrezkero bestelako begiez begiratu zioten elkarri, eta geroztik garbi izan zuten zein zen euren aberria, ez jesuitetan irakasten zietena baizik Euskadi. Gatazka berehala sortuko zen.



Elantxobeko gizon izenduak. Zutik, eskuinetik hirugarrena, Gorgorio Renteria. Eserita, ezkerretik hirugarrena, Don Juan Calle parrokoa.

Jakina, errebelazioa ez zen ezerezetik sortu. Familia eta herri euskaldunetatik, eta Andimaren kasuan bederen, ideologia nazionalistatik zetozen, eta behin jesuitetan sartuz gero bestelako giro erdaldun espainiarra xurgatu beharrean ziren, eta talka honek leialtasun-tirabirak sortzen zizkien. Bazen Loioian 1922a ezkerotik euskal akademia Oñan 1920an sortu zenaren antzera moldatua eta helburu berberetz, hots, besterik ez zekiten euskaldun elebakarrei predikuak egiten trebatze aldera, baina inola ere

ez euskal literatur lanak sustatzeko; arreta eta aberri-maitasun biziz landu beharrekoak latina eta gaztelania ziren, eta gero lehentasuna zutenak landu ostean, lanarteetan gorago esandako helburuaz euskara.

Hor zegoen Aita Olabide eredugarria, euskaldun berria, *Itun Zaharra* eta *Itun Berria* nahiz beste liburu batzuk euskaratuta eta euskaratzen ari zena. Andimak oso gogoan hartu zuen hari entzundako esaldi hau: "Euskal Herria morroi herria da". Aita Apalategi ttikiak

Erdi-erdiko eraikinen gora horixe zuen lantoki Andimak, Bilboko Arenalaren bestaldean, erresidentzia-lanetan aritu zenean.



8 euskal aditza ematen zien, baina hau ez zen taldekoa; batez ere, gazte gartsu, kementsu batzuk zeuden euskararekin guztiz maiteminduta eta honentzat lur berriak urratzen lana egin nahi zutenak, erdaldunek erdaraz bezala euskaldunek euskaraz.

Taldekoak honakoak ziren: Zaitegi, Andima, Lauaxeta, Iñaki Goenaga, Sarobe, Argarate, Sagastume, Plazido Mugika, Korta anaiak, eta gehiago.

Dozena bat laguneko taldetxo honek predikuak eta sermoiak euskaraz egiteko beren buruak trebatzearekin ezin etsirik, klasiko grekolatinoak, euren formaziorako maisu zirenak, euskaratzea hartu zuen xedetzat. Horretaz gain, beste

eskakizun batzuk ere egin zizkioten Aita Bianchi erretore donostiar erregezaleari, kasu, txango joateko hiruko taldeak zozketaz ez baizik hizkuntza errespetatuz osa zitezela, hots, euskaldunei euskaldunekin aritzeko aukera eman ziezaietela, bestela euskaraz atzendu egiten zirela eta. Bai lortu ere.


Parisen traje dotoreaz.



Orduan ohitura izan behar zuen ekitaldi erlijiosoetan Loiolako basilikako kupula aurrean bandera espainola jartzea. Behin, hortxe 1925 aldean, inguruko umeen lehen jaunartzea zela eta jarri dute bandera gorri-horia. Isilean joan dira Iñaki eta Andima gauean, kendu bandera eta kupula aurreko terrazara ateratzeko zegoen gelako trastelekuan sartu dute. Biharamunean, jakina, erretorea haserre galdezka banderaz zer jazo zen. Ez omen zituzten harrapatu.

1926an, Urolako trenaren inauguraziokoan, Alfonso XIII erregea etorri zen bere segizioarekin eta Loiolako geltoki berrian geldialdia egin behar zuen. Aita Bianchi erretoreak pentsatu zuen Iñaki eta Andima amorratzen egongo zirela geltokira

joan eta haren omenez "biba" batzuk botatzeko. Halaxe, euren zeldara joan eta aita jesuiten batek erretorearen gaztigua pasatu zien, Loiolako geltokira joan eta erregea iristean ongi etorria egin behar ziotela. Ordurako zakur zaharrak ziren aiputan ditugun biak, eta aurrez jakin zuten nork esan behar zituen "biba"-k eta zer "biba" ziren. Trena iritsi zenean, geltokiburuak esan zituen azkar-azkar: "Viva Alfonso XIII, Viva la Diputación, Viva el general Primo de Rivera, Viva el tren del Urola" eta trenaren zarataz ez zen, nonbait, ongi entzun; eta gure jesuitagaiak hor dihoaz mantsoagatik santutegira ahoa zabaltzeke; Aita Bianchi berriz ez zen kontentu geratu, eta bera hasi omen zen hots handiz "Viva Alfonso XIII "-ka.



10

Ez ziren ongi konpontzen Aita Bianchi monarkikoarekin, eta Oñara Filosofia egitera joan zirenean erretore berberaz topo egin bazuten, hortxe-hortxe atera egingo omen ziren. Baina han Matias Ibiñagabeitia, Andimaren osaba izan zuten erretore, eta harekin nahiko ongi moldatu ziren.

Loioian hasi zen Andima euskaraz idazten, euskaltzale eta abertzale porrokatu egiten, eta bizi guztia eginez emango du. Oñan Filosofia egin, eta hautatu beharrean gertatu zen beste

jesuitak bezala: Madrilera soldadutza egitera ala Colombiara maisutza egitera. Colombiara jo zuen eta bertan hiru urte eman. Bide batez, Hego Amerika ezagutzen hasi zen, adiskideak egiten, eta ongi etorri zizaion geroago hara joan beharra izan baitzuen. Teologia eta Zuzenbide Kanonikoa egitera Marneffe-ra (Belgika) jo behar izan zuen, eta ordenatzeko puntura iritsirik atzera egin zuen.



Pariseko Quentin Bouchard-en zerbitzu-lanetan.

Zerk atzeratu zuen? Euskara eta aberria zerbitzatzea eta Jesuita izanik jainkoa zerbitzatzea elkarri muturka ikusi zituen?, bere goitik zeudenek hala ikusarazi zioten? Emozioz gainezka idatzitako gutuna idatzi zion Zaitegiri 1935eko apirilaren 21ean, ordu hartan Marneffe-ko jesuita-etxean euskal akademiako buru zenari. Zaitegik iritzia emateko utzia zion Argarateren lana, Argaratek Orixeren *Mireio*-z egindako lana itzuli egin zion, eta axolazkoena,

jakinarazi zion zoritxarra gertatu zitzaiola, jesuitatik atera egin zela. Damurik, zoritxarraz bestelako argitasunik eman gabe. Beste zera bat ere adierazi zion: bihotzean ongi landaturik zeramatzala bera, eta akademiako beste lagunak, inoiz ez ahazteko moduan.

Uste izatekoa da ohartarazi eta ikusarazi egin ziotela lehentasuna zeri eman behar zion, eta zerk zeren menpean egon behar zuen jesuita ona izango bazen.

Leizaola eta kidekoekin Parisen edota Caracaseko Eusko-Etxean.



12

Ama Deustuan bizi zen bere alaba zaharrenarekin, eta hara agertu zen Andima. Nahigabe ederra eman amari, eta bizibidea bilatzeari ekin zion. Zortea aldeko izan zuen. Chalbaudtar aipatuak Deustuan bizi ziren; famatuak nazionalistak zirelako -bat Aldundiko diputatu nazionalista izan zen eta- eta, besteak beste, *Unión de Explosivos*-eko akzionista nagusienetakoak izateagatik. Kontua da familia horrekin ezaupideak egin eta konfiantza hartu ziotelako eskuratu zuela lana, gorago aipatu enpresan bulegari gisa. 1936ko hasieran bidali zuten Portugaleko Trafaria-ra, dinamita-lantegira. Jakina, han ari zen gerra piztu zuenean Frankok.

Lehenbiziko ezjakintasuna eta dudak -mudak gainditurik -nahigabeturik agertzen zen nazionalistak gorriekin bat eginda zebiltzalako, nahiz eta uste zuten zuriak beharturik zebiltzala horrela-, laster ikasi zuten zer jazotzen zen: nola bere Deustuko koinatua espetxean zuten, nola hil zituzten Aitzol eta gainerakoak... Aukera izan zuten Euskadira etortzeko baina barrurik ez gerra ari zeia; hau bukatu orduko, ordea, ezinegonik adierazi zion Zaitegi lagunari handik alde egiteko gogoia zuela, barruak ez ziola agintzen Trafaria-n jarraitzea.



Gogoa prestaturik zuen Jose Antonio Agirre 1942-43an aurkeztu zitzaionean, honen gonbitari baiezko irmoa bezain erabakia emateko. Informazioa biltzen, espioitza-lanean arituko zen Eusko Jaurlaritzaren agindura. Utzi Trafaria eta Deustura itzuliko zen 1943 inguruan. Arlean fusilamenduak, gosea, arrazionatzeko kartila... Barrua behar zen etortzeko!

Bilboko Arenaletik ibaiaren bestaldera, Santanderko geltokiaren aurrean, bulego komertzialetiko etxe goran egiten zuen lan Anton Zugadirekin batean, eta Estatu Batuetako Kontsulatutik kobratzen zuten.

Zer informazio biltzen zuten? Frankoren kontrako ekintzen berriak, militar-arioko informazioa, itzal eta eragin handiko gi'zon-emakumeei buruzkoa, monarkikoen mugimenduak. Batez ere, azken honetan berezitu zen Andima. Garai honetan monarkikoen artean axoia handienekoak izan ziren Albako dukea eta Marañon medikuarekin solasaldiak izan zituen, aztertzeko ea hauek prest zeuden errepublikanoekin bat egiteko Franko eraistearren.



Guatemalan egindako argazki honetan ezkerretik eskuinera: Andima, Jokin Zaitegi eta Orixe. Hiruron lanari esker atera zen aurrera *Euzko-Gogoa* aldizkaria.

Sarri joaten ziren Madrilera eta Bartzelonara -Andimak berak dio gutun batean Madrilen bi urtez bizi izan zeia. Ingurukoek diote bidaiak bai, baina bizi ez. Ez dut egiaztatzerik izan-, hango informazio-sareekin kontaktatzera. Zugadi eta biak Bartzelonara joan ziren batean, itsasuntzia portuan atrakaturik zuten itsas-armadako ofizial batzuen ondoan afaltzea fortunatu zitzairen. Hauek bapo egin zuten jan eta edan, eta ordaintzeko orduan ez zuten diru aski; orduan, Antonek dirua aurreratu zien. Mesedearen ordainetan euren itsasuntzira gonbidatu zituzten afaltzera. Elkarrekin afaldu, eta han lortutako informazio militarra nagusiei helarazi zieten. Nagusia Pepe Mitxelena zuten. Honi ezezik Eusko Jaurlaritzan zeuden sozialista eta komunisteri ere pasatzen zieten lortutako informazioa.

Antonek esatera, Andima espioia ona zen. Zuhurra, barru handikoa, eta bildutako informazioa baloratzen ona. Hierarkian gorago zeudenen menpeko lotu, ekimenik gabea baino gehiago informazio-iturri bila libre samar ibiltzea gehiago zegokiona, nola izaeraz hala

agintariak utzi maniobra-tarteak ahalbideturik.

1947ko martxoaren hamabostean, eguerdian, poliziak joan zitzaizkion etxera. Eskerrak etxe honek lau alde zituela, eta inguruan baratzak. Atzeko aldetik, horma pasa eta ihes egin zuten. Laster idatzi zien Andimak Parisetik Deustuko ilobei adieraziz "Bach-en fuga" jo eta arrakasta izan zuela. Anton Zugadik ez du zalantzarik komunistek salatu zituztela nazionalistak garrantzi handia hartzen ari zirela-eta ezin eramanik.



Caracasen -Coche-ko elizan seguraski- euskal abesbatza zuzentzen.

PARISEKO URTE EMANKORRAK

Pariseko Quentin Bouchart-en Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu-etxean hartzen du ostatu, eta huraxe izango du lantoki ere urte batzuen buruan. Baina informazioa biltzetik ezari- ezarian atzeratu egiten da, edo hainbat zirkunstantziak -nazioarteko politikaren aldaketak, eta gainerako abertzaleekiko ezadostasunek- atzerarazi egiten du, eta geroz gehiago euskalgintzara lerratzen da, batez ere, Zaitetik Guatemalan *Euzko-Gogoa*-ren zuzia jasotzen duenez geroztik.

Jarraitzen du lankidetzan Jose Antonio Agirrerekin-eta, zerbait euskaratu behar dutenean, kasu, Gabonetako mezua, edo beste zernahi; baina bere egiteko nagusia *Euzko-Gogoa* bultzatzea, eta euskara gaindegietara, kultur maila goitiarretara igoarazten lehiatzea da. Gaztetan, Loioian euskal taldetxoaren arrimuan egindako amets urdinak gauza daitezten amorekatik, dituen guztiak ematea.

Euzko-Gogoa izaro gisa irudikatzen du, erdal itsasoaren erdian dagoen uharte. Portu zabalekikoa, euskaraz diharduten guztiek dutela bertan babes eta abegi on. Bera halaxe agertu zen beti.

Jon Mirandek egin ahala erakusten zizkion olerkiak. Kristautasunaren arras kontrakoak, erotikoak, Schopenhauer eta Nietzsche-ren ideia eta moralaren eraginpekoak. Ez zion muzinik egiten Andimak; aitzitik, makinaz jotzen zizkion, eta beti adorea ematen.



Caracasen pianoa jotzen, seguraski Euzko-Etxean.



Caracaseko Maiquetia-ko hondartzan lagun eta ahaideekin.

Bera ere jarri zen, zernahitarako euskara lagun harturik, erotikaren baso sasitsua garbitzera. Ez zion ekin Virgiliorekin, jesuitetako autore famatu eta miretsiarekin, Ovidioren *Ars Amandi*-rekin baizik. Maitea non aurki daitekeenaz dihardu liburu honetan Ovidiok, nola hurbildu berarengana. Irakaspenak ematen dizkie maitaleei beste sexukoekin nola jokatu behar dutenaz, lehenbizi gizasemei eta gero emakumeei.

Ez ziren bakarrak Mirande eta Andima euskarari erotikaren bideak zabaltzeko ahalegin horretan. Hego Euskadin Nemesio Etxaniz ere horretan zen, eta Salvatore Mitxelenak ere saialdirik egin zuen. Zer aldea gerraurreko Andimagandik gerraostekora. Gerraurrean Aita Santuen entzikliketako irakatsiak gurera ekarri beharrez idatzi zuenak bestelako jakia ematen digu gerraostean.

Kopeta-zabaltasun honek eta bere euskaltzaletasun gotorak tirabirak sortu zizkion aberkideekin. Besteak beste, Jon Miranderen artikulu gatazkatsuak argitaratzen zituen Isidoro Fagoaga *Gemika* aldizkariko

zuzendariari hegoak moztu zizkioten, eta Andimak deitoratu eta salatu egin zuen. Jon Miranderekin ez zetorren guztiz bat, baina honen alde atera zuen burua, eta gaitzitu egin zen agintariekin. Jon Miranderekin berarekin ere izan zituen gorabeherak juduak zirela eta. Hark gaitzetsi egiten zituen eta honek berriz onetsi, aberria askatzen eta hebraiera nagusiarazten egin zuten lanagatik.

Ezadostasunak gorabehera, Parisen eman zituen urteak izan zituen oparoenak, batez ere, artikulugintzari dagokionez. *Pariseko Euzko-Deya* eta *Euzkadi-Irratia komunikabideetarako lanak*, *Gemika*, eta batez ere *Euzko-Gogoa*-n dezente argitaratu zuen. Erantsi hauei *Ars Amandi*-ren itzulpena eta burutan atera zuen euskara ikasteko metodo oinarritzkoa, euskaltzaletasuna eta euskal idazleak zuzpertzeko aldera burututako gutungintza ugaria bazter utzi gabe aintzat hartzeko uzta biribiltzen dute. Ez bakarrik kopuruz, nolakotasunez ere bai.

CARACAS-EN UTZI ZITUEN HEZURRAK

Azkenean 1954ko otsailean egin zuen Parisetik Guatemalara itsasuntziz. 1951 n ere bero-bero eginda ibili zen hara joateko, baina Espainiatik hara bidalitako txostenetan gorri arriskutsutzat azaltzen zen Andima -eurek zuten susmoa frogatzera dator, hots, komunistek salatu zituztela-, eta ez zioten baimenik ematen bertan sartzeko. Zaitegiri laguntzera zihoan. Honek zuzentzen zuen ikastetxean latina emango zuen baina, guztien gaineratik, *Euzko-Gogoa*-ren erredakzioan lagunduko zion.

Guatemalan egon zen bi urteetan berak eraman zuen aldizkariaren zamarik handiena. Euskaraz eta euskal gaiez erdaraz ateratzen ziren

liburuen erreseina onberak taxutu, idazlea kementzera zuzenduak; atariko gogorrak idatzi, euskal herriak erdalduntzen egiteko axolazkoa jokutzen ari zen Eliza erdaltzalearen kontra, eta ez bigunagoak euskara ez baizik erdara lantzen ari ziren abertzaleen aurka; eta bestalde euskal literaturaren historia egiteko materialak biltzeari jarraitu zitzaion.

Zaitegi ipar Euskal Herrira aldatu zen, eta aldizkaria ere hara eraman zuen. Guatemalan ez zuen zer eginik. 1956ko otsailean Caracaseran egin zuen bere iloba Lorereganana. Zer



Lore Mentxaka ilobarekin. Honekin bizi izan zen Caracasen 1956tik hil arte.

18

aurkitu zuen hemen? Euzkotar asko, baina abertzale euskaltzale gutxi. Bertako Eusko Etxea arrotza gertatu zitzaion. Laster ekin zion hitzaldiak emateari, euskaraz, noski, bat baino gehiago gogaitu behar bazuen ere. Euskarazko eskolak ematen ere bai. Eta inondik ere, euskaraz ere mezarik egon zedin leherrenak egiten.

Euskadiren askatasunaren beharra lau haizetara aldarrikatzeari emandako tarte bat ere izan zuen, ordea, tarte politikoagoa, beti ere kulturgintzaren araberakoa. Alderdi jeltzaleak Pariseko Euskal Mundu Batzarrean, 1956an, onartu zuen jokaera politikoa, hots, Espainiaren barrutiko alderdi demokratikoak Franko ahultzearren batera jokatzearena ez zuen ontzat

eman. Bere ustez, euskaldunak bere buruarengan izan behar zuen konfiantza, eta ez ezer itxaron espainiarrengandik, ez monarkiko eta ez errepublikanoengandik. Haiek ikusten bazuten euskaldunak indartsu zeudela, eurak etorriko zirela guregana irizten zion.

Idea hauei haize eman beharrez Eibarko Matxarirekin batean *Irrintzi* aldizkaria atera zuen 1958. urte hasieran. 1959an Caracasen eratu zen *Galeuzca*-n, aurrekoak federal kutsukoak bezala hau nabarmen independentista, axolazko partaidetza izan zuen, eta idazkari izendatu zuten Euskadiren aldetik.




Caracaseko lagunekin, besteak beste, Manuel Irujo, Máximo Andonegi, Periko Beitia eta José María Barrenetxe.

Bere xedea abertzaletasunaren ur geldiak mugiaraztea zen. *Irrintzi* aldizkariaren orrietan utzi zigun bere testamento politikoa, euskararen aldeko odol gabeko matxinadara dei eginez. Gutxi iraun zion sukar politikoak. Matxarirekin haserretu egin zen, Jose Antonio Agirre hiltzean honen omenez idatzi zuen artikulua tarteko. Nola lana ere elkarrekin egiten zuten, oso mingarria gertatu zitzaion banaketa.

Ostera euskal lanetara itzuli zen, bere lantegirik maiteenera. Santi Onaindiak egindako eskaria burutu ahal izan zuen, Virgilioren unai- eta alor-kantak buru emanek. Itzulpenek buruz esan, oso baldintza txarretan egin zuela lan. Itzulpengintza hein

batean norbanakoari dagokio, eta beste neurri batean hizkuntz elkarteari. Hizkuntza, egun baino askoz finkatugabeago zegoen, eta traduktologia haur-oihaletan. Iñigo Ruiz Arzalluzek¹ sostengatzen duenez, eta Aintzane Arrietak² berresten exegesia, alferrikako azalpenak erantsi beharra, didaktismoa, du akatsik nabarmenena, eta testua zahar-kutsuz janztea dohainik gailenena.



Euskal Editoreen Elkarteak argitaratzen duen *Klasikoak* bildumaren bidez, Andimaren itzulpen-lan bik ikusi dute argia: *Bergiliren Unai eta Alor-kantak* Iñigo Ruiz Arzalluzek paratuta eta *Ovidiusek Maita-Bidea* Aintzane Arrietaren eskutik.

¹ Iñigo Ruiz Arzalluz, *Bergiliren Unai eta Alor- Kantak*, Klasikoak 55, Donostia, 1.992.

² Aintzane Arrieta, *Ovidiusek Maita-Bidea*, Klasikoak 74, Bilbo, 1.994.

Literatur euskarari dagokionean, oso zabal agertu zen besteia iritziak zituztenekiko -F. Krutwig eta J. Mirande saiatu ziren lapurtera klasikora lerra zedin-, baina politikan bezala gogor bere hautuan. 1961ean izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle, horrek larregi poztu ez bazuen ere. Uste zuen batasuna noraezekoa zuela euskarak, eta horrek Azkueren gipuzkera osotuaren bidetik etorri behar zuela. Olabide eta Orixe izan zituen maisurik miretsienak, ahaztu gabe Jon Mirandek utzitako arrastoa. Ildo honetatik esan behar da oso gutxik bezala ezagutzen zituela gure elearen euskalki nagusiak; nola Hegokoak, hala iparrekoak.

1967ko azaroaren 2an, Domuru Santu egunean, goizaldean hil zen. Ez zuen hainbeste maite izan zuen aberrira itzultzerik izan.

Euskal kultur eragile bezala aparta izan zen. Zenbatek ekin zion bere euskal gartsutasun kutsakorrek eraginda euskaraz idazteari! Euskal literatura zuzpertzeko mila dolarreko saria antolatu nahi izan zuen, baina ez zuen aurrera eramaterik izan; eta bera hiltzean, lagunek elkarte bat eratu zuten ELE izenekoa - Andimarengandik beragandik ikasi zuten ele hitzaren esanahia eta hortik sigla-, Euskararen Lagunen Eikartea bere omenez. Eta honek saria banatu zuen urteetan.

